

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Deialdia eta oinarri espezifikoak IKT Teknikarien (Administrazio Bereziaren eskala, azpieskala tekniko, Erdi Mailako teknikari klasea, A taldea eta A2 azpitaldea) poltsa bat eratzeko.

Alkate jaunak DEC-2022/000882 (2022/03/07) zenbakidun Alkatetza Dekretua eman du, eta honako hau dio:

«Kontuan hartuta Giza Baliabideen buruak egindako txostena, honela dioena:

IKTetako teknikarien (administrazio bereziko eskala, azpieskala tekniko, erdi mailako teknikaria, a taldea eta titulazioko A2 azpitaldea) lan poltsa sortzeko beharrari buruzko IKT eta HAZ Saileko arduradunak egindako eskaera ikusita.

Kontuan hartuta Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren XII. kapituluan ezarritakoa, eta

Aurreko guztiagatik, sinatzaileak honako hau proposatzen du:

EBAZPEN PROPOSAMENA

Lehena: IKTetako teknikarien (administrazio bereziko eskala, azpieskala tekniko, erdi mailako teknikarien maila, a taldea eta titulazioko A2 azpitaldea) lan poltsa eratzeko deialdia onartzea.

Bigarrena: Deialdia arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarri horiek dekretu honen eranskin gisa jarri dira.

Hirugarrena: Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarki taulan eta webgune instituzionalean argitaratzeko agintzea.

Laugarrena: Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluari dagokionez.»

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritako ahalmenez baliatuz,

HAU XEDATZERA NATOR:

Transkribatutako ebazpen proposamena bere horretan onartzea, eta ebazpena ematea.»

Basaurin, 2022ko martxoaren 7an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



IKT-ETAKO TEKNIKARIEN (ADMINISTRazio BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALA TEKNIKOAK, ERDI MAILAKO KLASA TEKNIKOAK, A TALDEA, TITULAZIOKO A2 AZPITALDEA) LAN POLTSA BAT ERATZEKO OINARRIAK

Lehenengoa. — Deialdiaren xedea

Hautaketa prozesua deitzea oposizio bidezko sarbide libreko sistemaren bidez IKT Teknikarien lan poltsa bat eratzeke, Administrazio Bereziko eskalakoak, azpieskala teknikoak, erdi mailako teknikariaren klasekoak, A taldekoak eta titulazioko A2 azpitaldekoak.

Lanpostuaren eginkizunak une bakoitzean udal organigrama funtzionalean ezartzen direnak izango dira.

Bigarrena. — Hautagaiek bete beharreko baldintzak

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da:

- Europar Batasuneko estaturen bateko herritarra izatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsita nazioarteko itunen arabera, langilean joan etorri askea aplikatzeko zaion estaturen bateko herritarra izatea. Hala ere, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidezko banantzerik ez badago, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta zuzenbidezko banantzerik ez badago, eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak baina mendeak badira.
- 16 urte beteta izatea eta erretiro adinera iritsi ez izana.
- Ingeniaritza, Informatika, Arkitektura, Zientzia Fisiko, edo Geografiako graduak unibertsitate titulua edo baliokidea izatea edo titulu hori lortzeko eskubideak ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.
- Eginkizuna normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea, Ezinduek gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen aplikazioari kalterik egin gabe.
- Diziplina espediente baten bidez Estatuko, Autonomia Erkidegoko, Tokiko edo Erakunde Administrazioako zerbitzutik apartatuta ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez egotea.
- Herri administrazioetako langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legeko kausaren batean ez egotea.
- Administrazio agiriak emateagatik tasa arautzen duen 10. ordenantza fiskalean araututako azterketa eskubideengatik tasa ordaindu izana (taulako 6. artikulua, 17. kontzeptua) (azterketa eskubideengatik tasak Basauriko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden pertsonak hautatzeko prozesuetan). Tasaren zenbatekoa A2 (B) talderako 18,00 eurokoa da.

Langabezian daudenean, dagokion lan bizitzaren ziurtagiria aurkeztuta egiaztatzen badute, ez dute tasa ordaindu beharrik izango.

Oinarri honetan ezarritako baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunekoak izango dira, eta lanpostuaz jabetzen den egunean eutsi egin beharko zaie.

Hautaketa prozesuan onartua izateko eta parte hartzeko, nahikoa izango da izangaiek eskabidean adieraztea eskatutako baldintzak betetzen dituztela, horiek egiaztatzeko prozeduraren faseari kalterik egin gabe.

Hirugarrena. — Eskabideak

Onartuak izateko eta, hala badagokio, hautaprobetan parte hartzeko, izangaiek dagokion hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute, eta bertan adieraziko dute bigarren oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkionak.

Horretarako, eskabideen ataletan, honako hauek adierazi beharko dituzte izangaiek:



- Datu pertsonalak.
- Zer hizkuntza ofizialetan (euskara ala gaztelania) egin nahi dituzten oposizio aldiko ariketak.
- Deialdian parte hartzeko eskatzen den eta aurkeztu den titulazio akademiko ofiziala.
- Egiaztatutako hizkuntza eskakizuna.
- Era berean, eskabidea aurkezteko unean, langabetu egoera egiaztatu beharko dute azterketa eskubideagatiko tasaren salbuespena lortzeko.

Eskaera aurkezteak berekin dakar lanposturen bat presaz betetzeko datu pertsonalak (izen-abizenak eta telefonoa) eskatzen dituzten beste administrazio publiko batzuei lagatzeko baimena ematea.

Eskabide horiek korporazioko lehendakariari zuzendu eta bertako Erregistro Oroko-rran aurkeztuko dira, 10 egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Internet bidez ere egin ahal izango da eskaera, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen eskabidea betez: <https://sede.basauri.eus>.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. eta 66. artikuluetan zehaztutako moduan aurkeztu ahal izango dira.

Dagokion ziurtagiriaren bidez % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna egiaztatzen duten izangaiek egokitzapen hori beharrezkoa den ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu ahal izango dituzte, horretarako minusbaliotasun horren ehunekoa eta ezaugarriak adierazita.

Izangaiek eskabideetan adierazitako datuei lotuta geratuko dira, eta aldaketa eskatzeko modu bakarra idazki arrazoitu bat aurkeztea izango da, aurrez eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barruan. Epe hori igarotakoan, ez da horrelako eskaerarik onartuko.

Basauriko Udalaren web orrian hautaketa prozesuari buruzko informazioa emango da, bai eta prozesu horretatik eratorritako egintza guztiei buruzkoa ere, jakinarazpen eta komunikazio ofizialei dagokienez.

Laugarrena.— Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Udalbatzako lehendakariak ebazpena emango du, eta onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda hori Udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web orrian argitaratuko da, eta bost egun balioduneko epea emango da bazterketa horren aurka erreklamatzeko eta hura eragin duten faltak edo agiriak zuzentzeko.

Eskabidea epez kanpo aurkeztea ezin izango da zuzendu. Era berean, eskabideak aurkezteko epetik kanpo ezin izango da eskakizunak eta merezimenduak egiaztatzeko agiririk aurkeztu.

Erreklamazioetarako adierazitako epea igarotakoan, Udalbatzako lehendakariak beste ebazpen bat emango du, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzeko.

Ebazpen horretan, halaber, Epaimahai Kalifikatzailearen osaera eta oposizio ariketaren data adieraziko dira.

Aurrekoa gorabehera, ebazpen hori eman ondorengo edozein unetan, baita probak egiten diren bitartean ere, epaimahaiak edozein hautagairen eskabidean edo dokumentazioan baztertze kausa den zehaztasunik eza edo faltsutasuna ikusten badu, hori konponezina dela ulertuko da beti, eta epaimahaiak alkatetzari proposatuko dio hautagai hori baztertzea ebaztea.

**Bosgarrena. — Epaimahai kalifikatzailea**

1. Epaimahaiaren osaera Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluan ezarritakora egokituko da, eta mahaiburu batek, idazkari batek eta hiru mahaikidek osatuko dute. Osaera horren berri onartuen ebazpenean emango zaie izan-gai guztiei.

2. Nolanahi ere, Epaimahai Kalifikatzaileak bere lanetan aholkulariak sartzea erabaki ahal izango du. Aholkulariak dagozkien espezialitate teknikoen jardunera mugatuko dira, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

3. Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezin izango dute parte hartu, eta Udalbatza-ko lehendakariari jakinarazi beharko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta izangaiek ezetsi ahal izango dute, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

4. Epaimahai Kalifikatzaileko kide guztiek izango dute hitza eta botoa.

Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira.

5. Epaimahai Kalifikatzailea, gainera, titularrekin batera, haren idazkari eta mahaiburu eta mahaikide izateko izendatuko diren ordezkoez osatuko dute.

6. Epaimahai Kalifikatzailea ezin izango da eratu, eta ezingo du jardun, kideen erdia baino gehiago bertaratu gabe, titularrak zein ordezkoak izan.

7. Epaimahai Kalifikatzaileak prozeduraren edozein unetan jakiten badu izangairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, deialditik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren, eta egun berean emango zaio horren berri lehiaketa deitu duen agintaritzari. Egitatezko akatsak edozein unetan konpon daitezke, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Seigarrena. — Hautaketa prozesua

Hautagaiak oposizio libreko sistemaren bidez hautatuko dira.

Oposizioaren fasea

EZAGUTZEI BURUZKO LEHEN ARIKETA. NAHITAEZKOA ETA BAZTERTZAILEA

Bi atal izango ditu, eta bakoitza bere aldetik gainditu beharko da:

A) atala. Idatziz erantzun beharko zaio, Epaimahaiak ezartzen duen gehieneko denbora tartean, oinarri hauei dagokien gai zerrendako I. zatiko (I. Eranskina) edukiei buruzko lau erantzun aukera izango dituen galdetegi bati. Okerreko erantzunak zigortuko dira.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: puntuazioa berdin asmatutako erantzunen kopurua ken huts egindakoen herena ($P = A - E/3$). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira erroretzat hartuko.

A) ataleko azken puntuazioa 0 eta 10 puntu artekoa izango da, eta bi dezimal onartuko dira; proba gainditzeko 5 puntu lortu beharko dira.

B) atala. Deialdiaren gai zerrendako II. zatian (Zati Berezian) zehazten diren gaiak garatzeko azterketa bat izango da.

B) atalaren azken puntuazioa 0 eta 10 puntu artekoa izango da, eta bi dezimal ere onartuko dira. Proba gainditzeko 5 puntu lortu beharko dira.

A) atala gainditzeko ez duten hautagaien kasuan epaimahaiak ariketaren B) atala ez zuzentzeko ahalmena izango du.

BIGARREN ARIKETA PRAKTIKOA. NAHITAEZKOA ETA BAZTERTZAILEA

Deialdiaren gai zerrendako II. zatian (Zati Berezia) jasotako lanpostuari buruz eskatzen diren ezagutzeekin zuzenean lotutako ariketa praktiko bat edo batzuk egingo dira.



0 eta 40 puntu bitarteko puntuazioa izango du, bi dezimal ere onartuko dira, eta 20 puntura iritsi beharko da proba gainditzeko.

— Euskara egiaztatze fasea

Merezimendu gisa baloratuko da honako hauek egiaztatzea:

- 1. hizkuntza eskakizuna: 3 puntu.
- 2. hizkuntza eskakizuna: 5 puntu.
- 3. hizkuntza eskakizuna: 10 puntu.

Hizkuntza eskakizunak egiaztatze dagokion ziurtagiria eduki beharko dute izan-gaiek, edo bestela, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren 3. artikuluan (297/2010 Dekre-tua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzekoa, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzekoa) eta euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza titu-luen eta ziurtagirien bidez egiaztatzeetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ja-sotako hizkuntza eskakizunarekin pareka daitekeen tituluren bat. Ziurtagiriak prozesuko bigarren proba egiten den egunera arte aurkeztu ahal izango dira.

Zazpigarrena.— Prozesuaren emaitza

Hautaketa prozesuaren amaierako kalifikazioa ariketetan lortutako puntuazio guztien baturak zehaztuko du (betiere gainditu badira). Puntuazio berdinketak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legean ezarritako irizpideen arabe-ra ebatziko dira. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, Basauriko Udaleko karrera-ko funtzionarioentzako hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretako 9.1 oinarrian ezarritakoaren arabera ebatziko dira. Oinarri horiek Alkatetzaren maiatzaren 20ko 2070/2019 Dekretuaren bidez onartu ziren (2019ko ekainaren 11ko 110. zenbaki-dun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta).

Zortzigarrena.— Aldi baterako lan poltsak

Hautaketa prozesu honen emaitzaren ondorioz, lan poltsa eratuko da, 3 urteko ha-sierako iraupenarekin. Lan poltsa hori oposizioa ariketa guztiak gainditu dituzten izan-gaiekin osatuko da, aldi baterako langile beharrak betetzeko erabiliko da, eta Basauriko Udaleko lan poltsak arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da, hu-rrengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eratutako lan poltsa agortuta geratzen bada, lehentasuna izango dute, beste lan poltsa batzuen aldean, derrigorrezko eta baz-tertze indarreko ariketa gehien gainditu dituzten pertsonen zerrendek, gainditutako ari-keta horietan lortutako puntuazio osoaren ordenaren arabera.

Bederatzigarrena.— Onartutakoen zerrenda, dokumentuak aurkeztea

Hautaketa prozesua amaitutakoan, epaimahaiak onartutakoen zerrenda argitaratuko du, puntuazioaren arabera, eta zerrenda hori Udalbatzako lehendakariari bidaliko dio, lan poltsa eratzeko berariazko proposamenarekin. Proposamena loteslea izango da, bai-na berrikusi ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administra-zio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoaren arabera.

Lan poltsan sartzeko proposatutako oposiziogileek hautaketa prozesuan parte har-tzeko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aur-keztuko dituzte Udalbatzaren Erregistroan, gainditu dutenen zerrenda argitaratu eta 10 egun balioduneko epean.

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
2. Deialdian eskatutako betekizun espezifikoak justifikatzeko dokumentuak (uniber-tsitate titularen fotokopia konpultsatua, hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria).

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan poltsan sar-tzeko proposatutako oposiziogileek ez badute beren dokumentazioa aurkezten edo ez badituzte eskatutako baldintzak betetzen, ezin izango dira lan poltsan sartu, eta beren



jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira, hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidean gezurra esateagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Hamargarrena. — Izendapena

Dokumentazioa aurkezteko epea igarota, bitarteko funtzionario izendatuko dira hautagaiak, Basauriko Udalak Informazioaren Teknologien Saileko Administrazio Bereziko erdi mailako teknikarien lanpostuei dagokienez dituen beharren arabera.

Izendapena pertsonalki jakinaraziko zaio izendatutako pertsonari.

Interesdunak karguari uko egiten diola ulertuko da, baldin eta aipatutako epe edo baldintzetan karguaz jabetzen ez bada arrazoi justifikaturik gabe. Kasu horretan, hautaketa prozesuaren emaitzaren puntuazio ordenari jarraituz ordezkaturiko da, aurreko atalean aipatutako agiriak aurkeztu ondoren.

Hamaikagarrena. — Lan harremana etetea, ezeztatzea eta amaitzea

Bitarteko funtzionarioak kargua utziko du, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 63. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik ez ezik, hura izendatzea eragin zuen arrazoiak amaitzen denean ere.

Izendapena honako arrazoi hauengatik ezeztatuko da:

- Lanpostu arautua karrerako funtzionario batek betetzea, lege ezarritako edozein prozeduraren bidez.
- Esleitutako lanpostuak kentzea edo amortizatzea eragiten duten antolaketa arrazoiengatik.
- Izendapenean berariaz jasotako baimendutako epea amaitzeagatik.
- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 10.4 artikulua-
ren kasuan (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua, eta enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak aldatua), izendapena egin zenetik 3 urteko epea igarotzen denean.

Hamabigarrena. — Gorabeherak

Epaimahai kalifikatzaileak sortzen diren zalantzak ebazteko eta lehiaketa behar bezala antolatzeko behar diren erabakiak hartzeko baimena du, oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien eta horien eta epaimahai kalifikatzailearen jarduren ondoriozko administrazio egintzen aurka egin ahal izango dute, Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Oinarrietan aurreikusi ez den orori dagokionez, honako hauetan ezarritakoari jarraituko zaio: Estatuko Administrazioaren zerbitzura dauden langileak sartzeko Erregelamendu Orokorra (364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea eta haren ondorengo aldaketa, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

**IKASGAI ZERREDA****I. ZATIA
(OROKORRA)**

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa: Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak. Eskubideak eta betebeharrak (10-52 artikulua).
2. gaia: Estatuaren lurralde antolaketa. Autonomia erkidegoek: Ezaugarriak, eraketa eta antolaketa. VIII. titulua (137-158 artikulua).
3. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua: I. titulua. Euskal Herriaren eskumenak (10-23 artikulua). II. titulua. Euskal Herriko botereak (24-34 artikulua).
4. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa. Denbora eremua. Baldintzak eta epeak (29-33 artikulua). Administrazio egintzak eta egintzen eraginkortasuna (34-52 artikulua).
5. gaia: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (otsailaren 16ko 3/2012 Legeak aldatua): I. tituluko Zioen Azalpena, Atariko Titulua eta I. Kapituluak; eta Basauriko Genero Berdintasunerako IV. Plana.
6. gaia: Basauriko Udalaren antolaketa politikoa. Organoak eta eginkizunak. Basauriko Udalaren antolaketa administratiboa Organigrama.
7. gaia: Herriarrentzako Arreta Zerbitzua. Arreta kanalak (webgunea, egoitza elektronikoa, herriarrentzako arreta bulegoak, zerbitzuen katalogoa).
8. gaia: Basauriko Udalaren egoitza elektronikoa: kontzeptua, ezaugarriak eta eskaintzen dituen zerbitzuak.

**II. ZATIA
(ZATI BEREZIA)**

9. gaia: Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunerako azpiegiturak, zerbitzu komunak eta partekatuak. CI@ve Identifikazioa eta sinadura.
10. gaia: Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunerako azpiegiturak, zerbitzu komunak eta partekatuak. NOTIFICA.
11. gaia: Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunerako azpiegiturak, zerbitzu komunak eta partekatuak. Estatuko Administrazio Orokorren faktura elektronikoen sarrera puntu orokorra (FACe)
12. gaia: Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunerako azpiegiturak, zerbitzu komunak eta partekatuak. Ordezkaritzen eta Ahalduntzeen Erregistro Elektronikoa (REA).
13. gaia: Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunerako azpiegiturak, zerbitzu komunak eta partekatuak. Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun eta segurtasun nodoa. NISAE
14. gaia: Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunerako azpiegiturak, zerbitzu komunak eta partekatuak. GILTZA identifikazio eta sinadura sistema.
15. gaia: Zifratzea. Zifratzeko algoritmo simetrikoak eta asimetrikoak.
16. gaia: Identifikazio eta sinadura elektronikoa (1) Europako eta nazioko esparrua. Ziurtagiri digitalak. Gako pribatuak, publikoak eta itunduak. Sinadura elektronikoaren formatuak.
17. gaia: Identifikazio eta sinadura elektronikoa (2) Zerbitzu publikoak eta pribatuak ematea. Gako publikoaren azpiegitura (PKI). Identifikatzeko eta sinatzeko mekanismoak: "Smart Cards", NAN elektronikoa, mekanismo biometrikoak.
18. gaia: Irisgarritasuna eta erabilgarritasuna. W3C. Diseinu unibertsala. Web diseinu moldagarria.
19. gaia: Dokumentu elektronikoa kudeatzeko metadatuaren eskema (e-EMGDE). Eredu kontzeptuala.



20. gaia: Elkarrengarritasunerako Eskema Nazionala. Elkarrengarritasunerako arau teknikoak. Dokumentu Elektronikoen Elkarrengarritasunerako Arau Teknikoa aplikatzeko gida.

21. gaia: Elkarrengarritasunerako Eskema Nazionala. Espediente Elektronikoen Elkarrengarritasunerako Arau Teknikoa aplikatzeko gida.

22. gaia: Elkarrengarritasunerako Eskema Nazionala. Sinadura eta zigilu elektronikoen eta administrazioaren ziurtagirien politikaren Elkarrengarritasunerako Arau Teknikoa aplikatzeko gida.

23. gaia: Elkarrengarritasunerako Eskema Nazionala. Elkarrengarritasunerako arau teknikoak. Bitartekaritza plataforma: Datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko zerbitzuak, SCSP erabilia.

24. gaia: Elkarrengarritasunerako Eskema Nazionala. Elkarrengarritasunerako arau teknikoak. Informazio baliabideak Berrerabiltzeko Elkarrengarritasunerako Arau Teknikoa aplikatzeko gida.

25. gaia: Elkarrengarritasunerako Eskema Nazionala. Elkarrengarritasunerako arau teknikoak. Erregistro erakundearen artean idazpenak trukatzeko Datuen Ereduaren Elkarrengarritasunerako Arau Teknikoa aplikatzeko gida: SICRES 3.0.

26. gaia: Elkarrengarritasunerako Eskema Nazionala. Elkarrengarritasunerako arau teknikoak. Benetako kopiatzeko eta dokumentu elektronikoen arteko bihurtzeko prozeduren elkarrengarritasunerako arau teknikoak aplikatzeko gida.

27. gaia: ENS. CCN STIC 830. Segurtasun Eskema Nazionalaren aplikazio eremua.

28. gaia: ENS. CCN STIC 801. Erantzukizunak eta funtzioak SENen.

29. gaia: ENS. CCN STIC 831. Erabiltzaileen jardueraren erregistroa.

30. gaia: ENS. CCN STIC 812. Segurtasuna web ingurune eta aplikazioetan.

31. gaia: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua. DBEOren mendeko datu pertsonalen tratamenduaren arriskuak aztertze gida praktikoa.

32. GAIA.-Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua. DBEOren mendeko datuen babesean inaktuaren ebaluazioak egiteko gida praktikoa.

33. gaia: Kode irekiko softwarea. Software librea. Oinarrizko kontzeptuak.

34. gaia: Sare globalak erabiltzeko hizkuntzak eta tresnak. HTML, CSS eta XML. Web nabigatzaileak eta estandarrekiko bateragarritasuna.

35. gaia: Garapenerako arkitektura webgunean. Front-end web garapena. Bezeroaren scriptak. Frameworks. UX.

36. gaia: Web zerbitzuak. Kontzeptuak: WSDL.

37. gaia: Apache web zerbitzaria. Arkitektura eta kontzeptuak.

38. gaia: Softwarea diseinatzeko teknikak. Diseinu geruzen eta patroien arabera diseinua.

39. gaia: Prototipoak egitea sistemen garapenean. Aplikazioen interfazeak diseinatzea.

40. gaia: Aplikazio mugikorak. Ezaugarriak, teknologiak, banaketa eta joerak.

41. gaia: Eredu erlazionala SQL lengoia.

42. gaia: CMS edukien kudeatzailea: Jommla, Druppal eta Wordpress

43. gaia: Sistemen birtualizazioa: Kontzeptuak. Birtualizazio motak.

44. gaia: Sistemen birtualizazioa. Birtualizazio soluzioak.

45. gaia: LINUX: Arkitektura eta ezaugarriak. Segurtasuna. Komunikazioak. Fitxategi eta biltegiak sistematik.

46. gaia: LINUX RHEL. Red Hat Enterprise Linux banaketa. Instalazioa, konfigurazioa eta administrazioa. Prozesuen plangintza. Software paketeen kudeaketa



- 47. gaia: Windows Server: Arkitektura eta ezaugarriak.
- 48. gaia: Windows Server: Sistema eta komunikazioak instalatzea, konfiguratzea eta administratzea.
- 49. gaia: Windows Server: Domeinu zerbitzuak. Direktorio aktiboa. Taldeko zuzentzarauak.
- 50. gaia: Windows Server: Segurtasuna
- 51. gaia: Diskoan biltegitatzeko sistemak. Raid mailak. SAN/NAS sistemak: arkitektura, osagaiak, protokoloak eta administrazioa. Bolumenen kudeaketa.
- 52. gaia: Datu baseak. Datu baseak kudeatzeko sistemak. Kontzeptuak eta Tipologiak. Eredu erlazionala. Segurtasuna eta osotasuna.
- 53. gaia: MySQL. Instalazioa, konfigurazioa, administrazioa eta mantentzea. Babeskopiak eta berreskurapena.
- 54. gaia: SQL Server. Instalazioa, konfigurazioa, administrazioa eta mantentzea. Babeskopiak eta berreskurapena
- 55. gaia: Oracle 10X. Instalazioa, konfigurazioa, administrazioa eta mantentzea. Babeskopiak eta berreskurapena.
- 56. gaia: IKT azpiegituren monitorizazioa. Tresnak.
- 57. gaia: Sistemen segurtasuna. Segurtasun Eskema Nazionala. Segurtasun Eskema Nazionalera egokitzea. Segurtasun Estrategia Nazionala. CCN-STIC.»